



# Euskararen unea **ORAINTXE DA,** baita lantokietan ere

Egun bizi dugun pandemia-egoerak politikak berrikustea ekarri du, eta noski, bai eta lehenetsunak birdefinitzea ere. Tamalez, testuinguru honetan ere behin baino gehiagotan entzun dugu: orain ez da euskararen unea. Noiz da unea, orduan? Asmorik al dago gure herria inoiz benetan euskalduntzeko?

Guk argi ikusten dugu oraintxe dela momentua. Jendarte gisa krisi honetatik nola aterako garen, orain hartzen diren erabakiek eta abian jartzen diren politikek erabakiko dute. Horrela, krisiak inoiz baino ageriago eta gordinago erakutsi digu orain dugula euskararen egoera zaugarriari aurre egin eta hizkuntza-eskubideen bermean oinarrituko den jendarte berdinzaleago, kohesionatu eta demokratikoagoa eraikitze-ko aukera.

Aukera diogu, eremu sozioekonomikora aldaketa sakonak baitatoz, besteak beste, datozen bi hamarkadetan langileriaren erdia erretiroa hartzeko adinean egongo baita. Hortaz, belaunaldi aldaketa horrek abagune paregabea eskain dezake euskalduntzean jauzia egiteko: lan-mundura sartuko den belaunaldian inoiz baino euskaldun gehiago daude (%70etik gora).

Baina arrisku ere bilaka daiteke: neurri egokirik hartu ezean, eremu sozioekonomikoak belaunaldi hori erdaldundu dezake. Ondorioz, transmisioan, hezkuntzan edota helduen euskalduntzean urteetan eginiko ahalegina eta inbertsioa hankaz gora bota eta euskararen normalizazioa urte luzez galga dezake.

Horregatik, iazko urtearen amaieran, ELAk, LABek eta Euskalgintzaren Kontseiluak eremu sozioekonomikoa euskalduntzeko proposamen zehatza aurkeztu genuen: lan-bide arteko akordio batean jaso dadila 50 langiletik gorako enpresetan euskara-planak negoziatu beharra. Honek langileriaren erdiari eragingo lioke.

50 langiletik gorako enpresetan, bi aldeetako batek (langileek edo enpresa ardurdunak) hala eskatuta, euskara-plana ezartzeko aukera negoziatu behar izateaz hitz egiten ari gara. Baten batek pentsa dezake gutxienekora ez dela heltzen, negoziatu behar izateak ez duela ziurtatzen euskara-planak abiatuko direnik. Hala ere, urrats garrantzitsua da aukera dagoen enpresetan gai hori agendan kokatzea. Baina hau, noski, sindikatuon bultzadatik baino ez da posible izango. Confebask eta CEN zuzenean interpelatu bagenituen ere, argi genuen gure proposamenak sindikatuontzat etxeko lanak zekartzala.

Ohartuak gara, bai, garai konplexu eta zailak bizi ditugula eta, horregatik, eremu sozioekonomikoaren euskalduntzean dugun erronkari ahalik eta modu bateratuenan aurre egiteko behar besteko konpromisoa izan behar dugu guztiok. Atzera edo aurrera egiteko, orain baita unea.